

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERABEITIKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko errolda eta hura ordaintzeko epea irekitzea**

Egin delarik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten egokituz jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igarota, erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsiko da.

Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea:

- a) Borondatezko aldia: 2020ko apirilaren 1etik ekainaren 1era.
- b) Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza entitateetan kargatuko dira, 2020ko apirilaren 6an.
- c) Helbideratu gabeko ordainagiriak zerga egoitzetara bidaliko dira eta Kutxabanken bulegoetan ordainduko dira, ordainketa pasabide bidez, udaleko web orria erabilita: [www.erriberabeitia.eus](http://www.erriberabeitia.eus).

Jakinarazten da ezen, borondatezko aldian sarrera egiteko epea amaitu eta ordaindu ez bada, zorrak premiamendu bidez eskatuko direla, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua Orokorrak 28. artikuluan eta Zerga Bilketako Erregelamendu Orokorra onesten duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuak 70. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoaren arabera, sortzen diren errekargu eta berandutze interesekin.

Ribabellosa, 2020ko martxoaren 9a

*Alkatea*

**MIREN JOSEBE SANTAMARÍA MARTÍNEZ**